

Mikel Irizar

TOPAGUNEKO PRESIDENTEA ♦



DANI BLANCO

Euskararen etorkizuna, lankidetzan

TOPAGUNEAK hiru urte daruma eraldatzen, euskararen normalizazioan eraginkorraro izateko. Bide horretan, geltoki garrantzitsua izan zen 2011ko Kongresua, han adostu baitzen ikuspegi berria.

Berriki burutu dugu II. Kongresua, eta bertan ikuspegi hori ekarri dugu eraldatzeko bide zehatzetara. Eraldabide horiek bateratu egiten gaituzte, mugimendu bihurtu. Eta, beraz, indartu. Baina zertarako?

Euskararen normalizazioan 30 urteko ziklo bat amaitu da eta ziklo horrek uzten du, lorpen handiekin batera, topea jo izanaren sentsazioa. Dagoneko hausnarketa eta berrikuntza dabil han-hemenka euskalgintzako eragileen artean, topea gainditu eta ziklo berri bati indartsu ekiteko.

Bidegurutzeak ziurgabetasuna sortzen du eta krisi ekonomikoak, larritasuna. Biak ere akuilu onak gurdia mugiarazteko. Baina badaude faktore gehiago ere bilakaeraren alde:

– Aro politiko berriak lankidetzarako aukerak zabalitzen ditu herri erakundeen eta gizarte eragileen artean, iraganeko botere-kontrabotere dialektika gaindituta.

– Jakinduria handia metatu dugu hizkuntza normalizazioaren gainean, diziplina ugari: soziolinguistika, psikolinguistika, gizarte psikologia, diskursoen garapena, komunikazio estrategiak...

– Beste hainbat esparrutan ere normalizazio prozesu azkarrak ezagutu ditugu: feminismoa, ekologismoa, homosexualen eskubideak...

Gauzak horrela, adostu beharko genuke egitasmo bat, 30 urteko ziklo berri baterako. Egitasmoaren hezurdura litzateke plangintza potente bat: helmugako helburua, jardunbideak eta palankak, baliabideak eta epeak, funtzio banaketa, neurketa sistema zorrotza...

Egitasmoaren giharra izango litzateke euskalgintza berri bat, gizartean eta erakundeetan ondo txertatua, bi esparruen arteko lankidetzaren sustatuko lukeena eta gizarte osoari irekia, gizarte osoan eragiteko.

Azkenik, hezurdura eta gihar horiek behar duten bihotza izango da euskal hiztun ahalmendua, jantzia eta antolatua, ekintzailea, euskaraz biziko dena bizipozez, agoniarik gabe.

Topaguneak hiru urteko ibilbidean metatu duen indarra emango du ziklo berria abiatzen. Eta animatu nahi ditugu euskaltzaleak, gizarte eragileak eta erakundeak egitasmoaren oinarriak elkarrekin jarri ditzagun.

Gure iraganarentzat etorkizuna eskatzen zuen Txepetxek, Kongresuan omen du genuen liburuan. Euskarari etorkizuna emango diogu indarrak batuta, lankidetzan. ■



DANI BLANCO



Amets
Arzallus



BERTSOLARIA

Bankua

GURE AMONAK *kajaorrosa* esaten zion, gero dementziak jo zuen gaixoa, hitzei ere berdina gertatu zaie; zer esan nahi zuten ahaztu. Oroitzen naiz, ni, nola esplikatu ziguten ikastolan banku hitza nondik zetorren. Juduak merkatuetan egoten zireneko lekua omen zen. Harrizko mahai bat, izara berdez jantzia, eta jendea dirua prestatzen omen zioten, edo txanpon zaharrak aldatu, edo zernahi soskeria. Mahai bat zen, beraz, bankua.

Orain aulki bat da, aulki bat leiho baten ertzean, eta beste aldean amildegi bat, behean lore batzuk. Egoera bakoitzak du bere egiera, eta ez nuke esan gabe utzi nahi

lukurreroen aktibitatea kriminala dela, lehenik mailegua saltzen dute, gero pertsona, eta gero etxea. Baina bada beste zerbait krak egiten didana, are barnago sozialismoaren uretan mugitu den pertsona baten inpuitsua izan dela irakurtzean. Gure zentzu existentzialia bakarra apropiazio materiala da, zabalera handiko etxe batez jabetzea, eta hartaz gabetzen gaituztenean –erruki gabe eta gainera ostuz– gure buruaz beste egiten dugu. Leiho ertzean gelditzen den aulki horrek ematen du eseri eta pentsatzeko. ■

